

**ESPAINIAN ARAUTUTAKO JARDUERAK DITUZTEN NATURGAS ENERGIA TALDEKO**  
**ENPRESEN JOKABIDE-KODEA**

**AURKIBIDEA**

**I. HELBURUA ETA APLIKAZIO-EREMUA.**

1. Sarrera.
2. Helburua.
3. Aplikazio-eremua.

**II. BEREIZKETA FUNTZIONALA: HARTURIKO NEURRIAK.**

1. Zuzenean edo zeharka jarduera liberalizatuen eguneroko kudeaketaren erantzule diren sozietate arautu eta antolaketa-egiturak kudeatzeko ardura duten pertsonak.
2. Izendapena, kargu-uztea eta ordainsaria.
3. Sozietate liberalizatueta akzioen jabe izateko debekua.
4. Merkataritzarako sentikorra den informazioa babestea.
5. Erabaki-ahalmen eraginkor eta independentea.
6. Taldearen gainbegiratze-ahalmena.
7. Zerbitzu erkideen emaileak.

**III. JOKABIDE-KODEA JAKINARAZTEA ETA ZABALTZEA.**

**IV . ONESPENA, ALDAKETAK ETA INTERPRETAZIOA.**

**V . EBALUAZIOA. URTEKO TXOSTENA.**

**VI. JOKABIDE-KODEAREN INGURUKO DIZIPLINA-ARAUBIDEA.**

## **I. HELBURUA ETA APLIKAZIO-EREMUA.**

### **1. Sarrera.**

Legean xedatutakoaren arabera, sozietate-taldeek jarduera arautuak eta liberalizatuak egin ditzakete, betiere taldearen barruko sozietate berak egiten ez baditu jarduera batzuk eta besteak, eta independentzia-irizpideak betetzen badira. Independentzia-irizpide horiek, hain zuzen ere, Hidrokarburoen Sektorea arautzen duen 34/1998 Legearen 63.3 artikuluko a), b) eta c) letretan ezarriak dira (2007ko uztailaren 2ko artikuluko bakarraren 13. zenbakiak eman zion testuan; aurrerantzean, "Legea").

Legean aurreikusitakoaren arabera, sozietate arautuek jokabide-kode bat prestatu behar dute, eta kode horretan adierazi zer neurri hartu diren aipaturiko irizpide horiek beteko direla bermatzeko. Ondo egiaztatu eta ebaluatu behar da jokabide-kodea betetzen den.

### **2. Helburua.**

Kode honen helburua hau da: Legearen 63.3.d) artikuluko ezarritakoa betetzea.

Jokabide Kode honen ondorioetarako, Espainiako hidrokarburoen sektoreko jarduera araututzat hartuko dira birgasifikazioa, oinarrizko biltegiatzea, garraioa eta banaketa (aurrerantzean "jarduera arautuak"), eta jarduera liberalizatutzat, berriz, Espainian gasa ekoiztea eta merkaturatzea (aurrerantzean, "jarduera liberalizatuak"). Era berean, sozietate araututzat hartuko dira jarduera arautuak egiten dituzten Naturgas Energia Taldeko sozietateak (aurrerantzean "Naturgas Taldea"), eta sozietate liberalizatutzat, berriz, jarduera liberalizatuak egiten dituzten Naturgas Taldeko sozietateak.

### **3. Aplikazio-eremua**

Jokabide Kode hau, soil-soilik, Naturgas Taldearen eremuan, sozietate arautuei eta haien administratzaile, zuzendari eta enplegatuei aplikatuko zaie; orobat, aplikagarri zaien neurrian, Naturgas Taldeko sozietate liberalizatuei edo bestelako enpresei eta haien administratzaile, zuzendari edo enplegatuei.

## **II.- JARDUEREN BEREIZKETA FUNZIONALA**

Jarduera arautuak egiten dituzten sozietateen eta haietako langileen erantzukizuna duten pertsonen independentzia babesteko xedez, honako neurri hauek hartuko dira:

**1. Zuzenean edo zeharka jarduera liberalizatuen eguneroko kudeaketaren erantzule diren sozietate arautu eta antolaketa-egiturak kudeatzeko ardura duten pertsonak.**

1.1. Sozietate arautuen kudeaketaren erantzule diren pertsonak ezingo dute parte hartu zuzenean edo zeharka jarduera liberalizatuen eguneroko kudeaketaren erantzule diren antolaketa-egituretan; nolahi ere, kontuan hartu beharra dago II. kapitulu honen 6. atala.

1.2. Sozietate arautuen kudeaketaren erantzule diren pertsonak ezin izango dute ordezkaritza izan, ez oro har jardun, Naturgas Taldearen barruan jarduera liberalizatuak egiten dituzten sozietateen izenean.

1.3. Kode honen ondorioetarako, hauek hartuko dira sozietate arautuen kudeaketaren erantzuleak: haien jardueren eguneroko kudeaketaren erantzukizuna beren gain duten pertsonak.

Ondorio beretarako, Naturgas Energia Taldea, S.A.-ren Kontseiluak sozietate arautuen kudeaketaren erantzule diren pertsonen zerrenda eguneratu bat izango du.

1.4. Zuzenean edo zeharka jarduera liberalizatuen eguneroko kudeaketaren erantzule diren antolaketa-egituratzat hartuko dira jarduera hauetako baten edo gehiagoren eguneroko kudeaketaren ardura beren gain hartua duten batzorde do lantaldeak:

- Ekoizpen- eta merkaturatze-instalazioen egikaritzea, ustiakuntza eta mantentzea; orobat, beren jarduerak egiteko behar dituzten aktiboen plangintza, eraikuntza, hobekuntza eta garapena.
- Energiaren negoziazioa, salmenta, fakturazioa eta kobraketa, hala handizkakoa nola azken bezeroen hornikuntzakoa.
- Beren jarduerak egiteko behar dituzten hirugarren batzuen instalazioetarako sarbidea kontratatzea.
- Azken bezeroaren kontsumoaren neurketa, egiaztapena eta instalazioen kontrola.
- Gasaren aprobetxamendua eta trukea.

**2.- Izendapena, kargu-uztea eta ordainsaria.**

Jarduera arautuak egiten dituzten sozietateen kudeaketaren erantzukizuna duten pertsonen interes profesionalak babestuz haien independentzia bermatzeko, honako neurri hauek ezartzen dira:

#### 1. Izendapena eta kargu-uztea:

Sozietate arautuen kudeaketaren erantzule diren pertsonak izendatzeko eta kargutik kentzeko erabakia, soil-soilik, sozietate horietan eskudun den organoari dagokio, eta organo horri dagokio, orobat, sozietate arautuaren beharren arabera, lanpostuen ezaugarriak eta funtzioak definitzea.

#### 2. Ordainsaria

Sozietate arautuen kudeaketaren erantzule diren pertsonen ordainsaria erabakitzea, soil-soilik, sozietate horietako organo eskudunari dagokio. Horretan ez dute zer esanik Taldearen barruan gasa ekoizten edo merkaturatzen duten sozietateek.

#### 3.- **Sozietate liberalizatuetao akzioen jabe izateko debekua.**

Sozietate arautuen kudeaketaren erantzule diren pertsonak ezingo dute eduki akziorik jarduera liberalizatuak egiten dituzten sozietateetan.

#### 4.- **Merkataritzarako sentikorra den informazioa babestea.**

4.1. Merkataritzarako sentikorra den informazioetat hartzen da edozein informazio zehatz, publiko ez dena eta sozietate liberalizatuerei —hazietako enplegatu, zuzendari edo administratzaileei— lehiarako abantaila eman liezaiekeena haren berriz jakinez gero.

4.2. Jarduera arautuak egiten dituzten sozietateetako langile guztiak beharturik daude sozietate horiekin zerikusia duen eta merkataritzarako sentikorra den informazioa babestera eta ez zabaltzera. Besteak beste, jarduera arautuak egiten dituzten sozietateetan ari diren langileek ezingo dute partekatu informazio sentikorrik enpresa-talde beraren barruan jarduera liberalizatuak egiten dituzten sozietateekin.

4.3. Merkataritzarako sentikorra den informazioa, une oro, bereziki babestu eta zainduko da. Sozietate arautuek arduradun bat izendatuko dute ("segurtasun-arduraduna") informazioaren babesaz arduradun dadin eta hartarako irispidea izateko sistema baimendu dezan.

4.4. Merkataritzarako sentikorra den informazioa datu-base batean jasoa dagoenean, sarbide mugatuak izan beharko ditu datu-base horrek, baimenik ez duten pertsonak hazietara sartzerik izango ez dutela segurtatzeko. Sozietate arautuetako enplegatuetao bakoitzari, bere

behar jakinen arabera, merkataritzarako sentikorra den informaziorako sarbide bat esleituko dio segurtasun-arduradunak.

- 4.5. Sarbide baimendua duten erabiltzaileen zerrenda eguneratua prestatuko da. Erabiltzaileek beren zereginetarako behar dituzten datu eta baliabideetara bakarrik izango dute irispidea. Horretarako, sarbidea kontrolatzeko mekanismoak jarriko dira.

## **5.- Erabaki-ahalmen eraginkorra eta independentea.**

- 5.1. Sozietate arautuek erabakiak hartzeko ahalmen eraginkorra eta Taldearekiko independentea izango dute, gas natural likidotua birgasifikatzeko instalazioak eta gas naturala garraiatu, biltegitatu eta banatzeko instalazioak ustiatu, mantendu edo garatzeko behar dituzten aktiboek dagokienez, betiere kode honetan ezartzen diren mugen barruan.
- 5.2. Ezein kasutan ezin izango diete Taldeko sozietateek sozietate arautuei instrukziorik eman, ez eguneroko kudeaketari buruz, ez erabaki jakin batzuei buruz, izan gas naturala birgasifikatzeari buruzkoa edo gas naturala garraiatu, biltegitatu eta banatzeari buruzkoa, non eta ez den gainditzen urteko finantza-planean edo antzeko agiri batean ezarritakoa.

## **6. Taldearen gainbegiratze-ahalmena.**

- 6.1. Alde batera utzi gabe sozietate arautuen administrazio-organoari legez dagozkion ahalmenak, Naturgas taldearen buru den sozietatea den aldetik, Naturgas Energia Taldea S.A.-ri dagokio sozietate arautuen ekonomiaren eta kudeaketaren gainbegiratze-ahalmena.
- 6.2. Naturgas Taldearen gainbegiratze-ahalmena gauzatzea Naturgas Energia Taldea, S.A.-ko Administrazio Kontseiluari dagokio, edo halako eginkizunak osotara edo partez bere gain hartuak dituen edozein organo edo pertsonari. Gainbegiratze-ahalmenaren barruan, besteak beste, Naturgas Energia Taldea, S.A.-ri dagokio Taldearen helburu estrategikoak onestea, haiek betetzen direla gainbegiratu eta kontrolatzea, eta orobat sozietate arautu bakoitzaren zorpetze-mugak ezarriko dituen urteko finantza-plana edo agiri baliokidea onesteko ahalmena.
- 6.3. Ondorio horietarako, sozietate arautuen kudeaketaren erantzule diren pertsonak aukera izango dute aipaturiko organoek deitutako bileretara joateko, hartara berrikuspen-ahalmena baliatzeko aukera izatearren eta alde batera utzi gabe merkataritzarako sentikorra den informazioa ez

agertzeko betebeharra, bilera horietara sozietate liberalizatueta enplegatuak joaten direnean.

## **7. Zerbitzu erkideen emaileak.**

Sozietate arautuek eta sozietate liberalizatuiek aukera izango dute Naturgas Taldearen zerbitzu erkideak baliaitzeko, eta barrutik nahiz kanpotik eman ahal izango dira zerbitzu horiek.

Kanpoko zerbitzu erkideen kasuan, behar diren neurriak hartu beharko dira hauek etengabe saihesteko: (i) sozietate arautuak eta sozietate liberalizatuak nahastea; eta (ii) sozietate arautuetatik sozietate liberalizatuen sustapena egitea.

Kasu guztietan, zerbitzu erkideak ematean, irizpide objektibo eta gardenen arabera egingo da gastu-banaketa edo zerbitzu-prestazioa, eta baztertu egingo dira diskriminazioak, diru-laguntzak edo lehiarako abantailak.

## **III. JOKABIDE-KODEA JAKINARAZTEA ETA ZABALTZEA.**

1. Jokabide Kodea jakinarazi eta zabaldu egingo da haren aplikazio-eremuko sozietateetako profesionalen artean. Era berean, argitaratu egingo da sozietate arautuen eta Naturgas Energia taldea S.A.-ren web guneetan.
2. Sozietate arautuetako enplegatu guztiek jasoko dute bereizketa funtzionalari buruzko informazioa, eta, besteak beste, merkataritzarako sentikorra den informazioari buruzko ikastaroak jasoko dituzte.

## **IV. ONESPENA, ALDAKETAK ETA INTERPRETAZIOA.**

1. Naturgas Energia Taldea, S.A.-ko Administrazio Kontseiluari dagokio kode hau onestea, eta orobat berau eguneratu eta aldatzea, beharrezko iritziz gero.
2. Jokabide Kodearen interpretazioari eta hura aplikatzeko moduari buruzko edozein zalantza sortuz gero, Naturgas Energia Taldea S.A.-ko Administrazio Kontseiluari dagokio zalantza argitzea.

## **V. EBALUAZIOA. URTEKO TXOSTENA.**

1. Naturgas Energia Taldea, S.A.-ko Administrazio Kontseiluak begiratuko du kode honetan harturiko neurriak bete daitezela.

2. Ondorio horietarako, Naturgas Energia Taldea, S.A.-ko Kontseiluak kode hau betetzen den egiaztatze eskatu dio Naturgas Energia Taldea, S.A.-ko Barne Ikuskaritzako Zuzendaritzari, eta betetzeari buruzko informazioa eman beharko dio zuzendaritza horrek, maiztasun jakin batekin, Naturgaseko Administrazio Kontseiluari.
3. Urtero, Naturgas Energia Taldea, S.A.-ko Administrazio Kontseiluak txosten bat aurkeztuko die Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioari eta Energia Batzorde Nazionalari, kode honen betetzeari buruzkoa eta orobat kode honen 2. kapituluaren adierazitako bereizketa funtzionalerako irizpideak betetzeko harturiko beste edozein erabakiri buruzkoa, halakorik baldin bada.

## **VI. JOKABIDE-KODEAREN INGURUKO DIZIPLINA-ARAU BIDEA.**

1. Inork ez du zilegi, edozein maila edo posizio duela ere, kode honetan ezarritakoaren kontra doan ezer eskatzea profesional bati. Eta, bestalde, ezin profesionalak ez dezake jokabide desegoki edo legez kanpoko bat zuritu goragoko agindua zela argudiatuz, Jokabide Kode honen kontra doana baldin bada jokabide hori.
2. Barne Ikuskaritzako Zuzendaritzaren arabera profesional batek legean edo Jokabide Kode honetan ezarritakoa urratu duela ikusiz gero, Naturgas Energia Taldea, S.A.-ko Administrazio Kontseiluak edo hark eskuordetutako pertsona edo organoak egoki deritzon diziplina-neurriak hartzea erabaki ahal izango du, betiere horretarako lege-esparruaren barruan.